



ALKATETZAREN MEMORIA: 2023KO AURREKONTUAK

2023ko aurrekontuak onartzeko bideratu den espedientearen barruan, nahitaezkoa da Alkatetzaren Memoria hau sartzea.

Memoria honen helburua da udal gobernu-taldeak 2023. ekitaldirako prestatu duen aurrekontu-zirriborroaren partidarik esanguratsuenak banakatu eta argitzea, eta Alkatetzak gainerako udal talde politikoekin egin duen negoziazio-prozesuaren berri ematea, aurrekontuok onets daitezen, agiri honen amaierako zatian behar bezala aipatuta geratzen dena.

Negoiazio hori, alde batetik, gobernu-talde sozialistak Udalaren eguneroko kudeaketa bultzatzeko duen borondatearen isla da, ahal den neurrian, Udal honetan oposizioko alderdi politiko guztiekin edo batzuekin akordioak eginez. Elkarriketarako eta negoziatzeko jarrera, gobernu-talde sozialistaren egunerokotasunean konstantea dena. Eta bestetik, gutxiengoan gobernatzen dugula jakinda, negoziazioak datorren urterako Udal Aurrekontuak onartuko direla bermatzeko laguntza nahikoa izateko behar logikoari erantzuten dio, eta, horrela, Gobernu-talde hau 2019an Eibarko Alkatetzara eramanean zuen hiri-proiektuan aurrera egiteko funtsezko kudeaketa-tresna eskura izatea.

Gainerako taldeen ekarpenek, aurrekontu-akordioaren bidez, beti aberastuko dute aurkeztutako zirriborroa, berez ere herriaren beharretara egokitua, ekimenen beste ikuspegi osagarri bat emanez eta herria nahiz bertako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen lagunduz.

Aurrekontu hauek 2019-2023 agintaldiko azken urtearekin bat datoz, aurrean dauzkagun udal-hauteskunde batzuen atarian (maiatzaren 28a), eta Udalean dauden alderdi politikoentzat hain erabakigarria den une honetako zurrumbiloan murgilduta (baita hemen ez dauden alderdientzat ere), non herritarrek azken 4 urteetan egin dugun lana aztertzen duten.

Nire kasuan, 2021eko martxoaren 13az geroztik nire herriko alkate izatea den ohore handia eta erantzukizun handia nabarmendu nahi nituzke.

Alkatetzaren aginte-makila hartu nuen hitzaldian esan nuen, eta, gaur egun, orduetik hona igarotako denborak ematen didan ikuspegiarekin, baieztapen hori hitzez hitz berretsi besterik ezin dut egin. Eibarko alkate izatea ohore handia da. Esperientzia bene-benetan atsegingarria, Eibar hobea izan dadin eta Eibarko herritar guztiak hobeto bizi daitezen, zintzotasunez eta apaltasunez, lan egitea eskatzen duelako.

Eta, ondorioz, eta aurrekontuen zirriborro honi dagokionez, horixe da, hain zuzen ere, zirriborro honen asmoa eta helburua, hiri handi honek merezi duen bezala, bizilagun guztiak zerbitzatzea.



Aurrekontu-zirriborro honek, nola ez, gure hauteskunde-programaren ildoari jarraitzen dio, 2019ko udal-hauteskundeetan garaipena eman zigun ildo hari eta, gutxiengoan gobernatzean, gure Agintaldiko Ekintza-Plan bilakatu zen programari. Azken 4 aurrekontuak elikatu dituena, inguruabarrek ahalbidetu duen neurrian.

Aurreko urteetako Alkatetzaren Memoretan egin den bezala, ezinezkoa litzateke ez aipatzea —azken aldiz aipatu beharra izango delakoan— COVID-19aren pandemia. Zorionez, gaur egun ez da lehen orrialdeko albiste, baina, nola ez, laurtekorako aurreikusitako proiektuak eragotzi ditu. Udala, herritarrengandik gertuen dagoen administrazio publikoa, egoerak eskatzen zuen mailan egon behar zen, gainerako administrazio eskudunekin batera, behar den babesa emanaz garai zail hauetan. Eta hala izan da: proiektu jakin batzuk aldi baterako uztera behartu du, asmo horiei aurre egiteko behar adina baliabide izan arte.

2023ko aurrekontuen zirriborro honek aukera ematen digu gure kudeaketan normaltasuna berreskuratzeko, beti Udal honen ezaugarri izan den inbertsio-pultsua berreskuratzeko eta hiria modernizatu eta hobetzeko obra garrantzitsuak egiteko planak indarberritzeko, hurrengo ataletan zehatzago aztertuko den bezala.

Azken finean, 45.833.901,25 euroko aurrekontu-zirriborro bat aurkezten dugu, familien egoera hobetzeko; ekonomia- eta ekoizpen-sareari laguntzeko; elkarte-sareari laguntzeko, eta gure inguruneetan hobekuntzak egiteko, gure hiria irisgarriagoa, erosoagoa eta bizigarriagoa egiteko. Jarraian azalduko dira diru-sarreraren eta gastuen kapituluak, aurrekontu-zirriborro honen zehaztapenen eta berezitasunen ikuspegi orokor egokia eskainiko dutenak.

DIRU-SARRERAK KAPITULUAREN EGOERA

Aldez aurretik, eta 2023ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroan jasotako diru-sarreraren aurreikuspena urkultzen hasi aurretik, laburki aipatuko dut, ohikoa den bezala, Finantza-pasiboak izeneko 9. kapitulua, kredituaren bidez, aurrekontuak behin betiko orekatzeko aukera ematen duena, eta, gure finantza-egoera orokorrari dagokion zorpetze arduratsu eta egokian oinarrituta, gure diru-sarreraren ahalmen garbiak utziko ligukeena baino gastu eta inbertsio gehiago egin ahal izatea.

Beraz, aipatu berri dudana 9. Kapitulu (8.760.365,94 euro) hori kontuan hartu gabe, 2023ko ekitaldi honetarako 37.073.535,31 euroko diru-sarrerak aurreikusi ditugu; 2022. ekitaldian, berriz, 34.799.755,01 euro izan ziren. Ekitaldi biak konparatuz gero, 2023an 2022an baino 2.273.780,3 euro gehiago izango ditugu diru-sarreretan. Hori modu berezian nabarmendu beharra dugu, kontuan hartzen badugu tokiko zergak izozten ditugun zortzigarren urtea dela honako hau. Zerga-izozte hori aurrerago aipatuko dut.



Gehikuntza hori, funtsean, 2023rako aurreikusitako Foru Funtzari zor zaio, 22.534.445 eurokoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako aurrekontuak erakusten duen bezala. Zenbateko 2022rako aurreikusitakoa (21.257.411,06 euro) baino askoz handiagoa da eta hori guztia 4. kapituluan (Transferentzia arruntak) jaso da, aurreraxeago azalduko den moduan.

Atal honetan, orain arte egin den moduan, Foru Funtzak Gipuzkoako udalerrientzat duen garrantzia azpimarratu behar dugu, gure herriaren 2023rako aurrekontuan jasotako diru-sarrera guztietan izango duen eragina ekitaldiaren aurrekontuan jasotako diru-sarreraren % 50ekoa baita.

Bestalde, lehen aipatu dudan zerga-izozteari dagokionez, hauxe nabarmendu nahi dut: Udal Osoko bilkurak, Alkatetza honek hala eskatuta, duela hilabete batzuk 2023. ekitaldirako Udalaren Ordenantza Fiskalak berriro izoztea onetsi zuela.

Tokiko zergen izozte berri horrek esan nahi du ez dela handituko Udalak gure herritarren poltsikoetan gaur egun egiten duen presio fiskala, eta, aldi berean, Udaleko gobernu taldeari eraginkortasun handiagoa eskatzen dio dauden baliabideen kudeaketan, aurrekontuaren euro bakoitza ahalik eta gehien aprobetxatuz.

Zortzigarren urtea da jarraian, ez gehiago, ez gutxiago, Alkatetza honek Udaleko gainerako alderdiei tokiko zergak izoztea proposatzen diena.

Eta hori, nahiz eta, alde batetik, Udal Kontu-hartzaitzak, bere eskumenez baliatuta, zergak goratzea gomendatzen duen eta, bestetik, inguruko udalerrri gehienek udal-tasak eta zergak 2023an goratuko dituzten.

Ostera, Alkatetza honek kontsideratu zuen zerga-izozte horrek beharrezkoa izaten jarraitzen zuela oraingo testuinguru ekonomikoan, eta hala egitea proposatu zuen, Udal Osoko bilkuraren baietza jasoz.

Aurrekoaz gain, kontzienteki hartutako erabaki politikoek, eta duela urte batzuetatik hona Eibarko herritarren onurarako izan direnek ere —hala nola Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea gure etxebizitzetan, fatxadetan, teilatuetan edo auzo-igogailuetan egiten ditugun obra txikiak— murriztu egiten dituzte Udalaren diru-sarrerak, baina Alkatetza honek bidezkotzat eta egokitzat jotzen ditu herritarren alde hartutako erabakiak direlako.

Eta erabaki horretatik ondorioztatzen da Zuzeneko Diru-sarreraren 1. kapituluak 2022. ekitaldian baino 200.000 euro gutxiago izango dituela. OHZ, Ibilgailuen Zerga, Gainbalioa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ditut hizpide.

Edozelan ere, azpimarratu behar da alde hori ederki konpentsatzen dela, esate baterako, 2. kapitulurako (Zeharkako zergak, 550.000 euro 2023an; 2022an, 500.000 euro jaso ziren aurrekontuan) eta 3. kapitulurako (Tasak eta bestelako diru-sarrerak, 2.531.708,48 euro 2023an; 1.529.809 euro 2023an) aurrekonturatutako zenbatekoekin.



Tasei eta bestelako diru-sarrerei buruzko 3. kapitulari dagokionez, nabarmentzekoa da % 60ko igoera izan dela (2.531.708,48 euro 2023an, eta 1.529.809 euro 2022an), nahiz eta zergak izoztu. Hala ere, Kirol Patronatua udal-egituran sartu denez, eta, abonatuak ematen zaizkien zerbitzuei dagozkien tasak Udalak kobratuko dituzenez, igoera izan da.

Transferentzia arrunten 4. kapituluaren barruan, lehen esan dudan bezala, Udal Finantzaketarako Foru Funtse aipatu beharrean gaude. 2022. urtearekin konparatuta, % 6ko gehikuntza aurreikusten da kontzeptu honengatik ekitaldi bien hasieretan aurrekonturaturako zenbatekoekiko. Foru-ekarpen hori Aldundiak diru-bilketarako duen ahalmenaren ondorio dela kontuan hartuta, azken urteotan izandako goranzko joera horrek erakusten digu, lurraldearen egoera ekonomikoa ere hazkunde iraunkorreko bide horretan dagoela.

Bestalde, 6. Kapituluak, Inbertsio errealak eta bestelako diru-sarrerak besterentzekoak, hirigintza-jarduketan ondorioz, 195.000 euroko gehikuntza izan du 2022ko zenbatekoarekiko, 500.000 euro.

Aurreikusitako zenbateko hori udal ibilgetuaren salmentatik dator; zehazki, Asolaigartza eta Ipuruako garajeak saltzetik.

Ikus daitekeenez, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsearen 2. kapituluaren portaerak, 4. kapituluaren eta 6. kapituluaren barruan, bide ematen du, 2022arekin alderatuta, 2.273.780,3 euro gehiagoko diru-sarrera izango dela aurreikusteko. Hala, agintaldiaren lehen ekitaldi honetan, gastu-proposamenen bidez hartutako konpromisoak betetzen joan ahal izango gara.

GASTUEN KAPITULUEN EGOERA

Atarikoan aurreratu dugun bezala, Aurrekontuen Proiektu honek —agiri honen onarpena bermatzen duten eta zuzenketen bidez islatuko diren akordio politikoen ondorioz etor daitezkeen ekarpenak alde batera utzita—2.5000.000 inguruko gastu-gehikuntza dakar 2022ko Aurrekontuen Proiektuaren gastuarekiko, eta 46 milioi euro inguruko proposamen batera iristen da.

Aurrekontu-teknikak dokumentua kapitulutan eta partida funtzioaletan egituratzera behartzen du, eta batzuetan zaila egiten da proposamen honen bidez lortu nahi diren helburuak begiztatzea.



Halaber, zenbait kapitulu Udala bezalako erakunde baten ohiko funtzionamendutik eratorritako betebeharren gatibu dira. Pertsonaleko gastuek gastu osoaren heren bat hartzen dute (15.552.243,41 euro), eta funtzionamendu gastuek, aktiboek eta pasibo finantzarioek maniobratzeko tarte txikia uzten dute, eta nahitaez bete beharreko kapitulu bilakatzen dira.

Agintaldiaren azken urtea dugu honako hau. Agintaldi honetan, jakina, COVID-19aren pandemiak eragin handia izan du, eta atzerapen handia ekarri du aldi honetan aurrera ateratzea gustatuko zitzaizkigukeen proiektuak gauzatzean. Eta herria aurrera atzeratzeagatik eta gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeagatik, proiektu horiek ahalik eta azkarren gauzatzen saiatzen ari gara.

Xehetasun larregikoetan sartu gabe, partidaz partida aztertu gabe, komenigarria da Memoria honetan, Aurrekontu honen bidez, herriari aurrera egiten, hobetzen eta herritarrek eskatzen dituzten beharrei erantzuten jarraitzeko aukera emango duten helburuak, proposamenak eta ekimenak jasotzea.

Eibar herri egiten jarraitzea, gu guztiok harro sentitzeko modukoa.

Horretarako, Memoria hau ulergarriagoa izan dadin eta gobernu-talde honek agintaldian zehar gauzatu nahi duen ekintzaren ildo nagusiak identifikatu ahal izateko, nire ustez 2023ko Aurrekontuen Proposamen honetan jaso diren ekintzarik esanguratsuenak biltzen saiatuko gara.

Aurrenik, **inbertsioen atala 6,72 miloi euroraino igo da**, hiri-inguruneak hobetzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta eraikinak egokitzeko proiektuak egitea ahalbidetzeko, eraikin horiei duten balioa eman eta erabilera berriak ezartzeko. Horrela, bada, 2023ko ekitaldi hau izango da jarduketa hauei ekitekoa:

- Anbulatorio ingurua eta Julián Etxeberria kalearen ingurua berriz urbanizatzea, hirigunean oinezkoentzako ardatz bihurtzeko.
- Torrekuako anbulatorio zaharra birmoldatzeko obra, Amaña eta Legarre auzoak espazio anitzeko ekipamenduz zuzkitzeko. Ekipamendu horren erabilera nagusia jubilatuen etxearena izango da.
- Igogailua eraikitzea, Barakaldo kalea —Electrociclos ondoan— Estaziño eta Azitain arteko trenbidearen gaineko pasealekuarekin lotzeko, Maltzaga-Elgoibar bidegorriarekin lotuz.

Horixe izango da eraikiko diren hiru igogailuetako lehena; eta irisgarritasun-arloan zerbitzua emango dien atarrietako bizilagunentzako hobekuntza nabarmena izateaz gain, egungo defizit-puntua (puntu beltza) kentzeko aukera emango du.

- Legarre kaleko 8. zenbakiko plazaren zoladura berriztea.
- Bustinduitarren kalea eta Arragueta kalea berrurbanizatzea, Eibarko bi kale garrantzitsu, eraldatu eta erosoago eta erakargarriago bihurtuko direnak.



Obra horien hasierako faseek bat egingo dute denboran beste obra garrantzitsu batzuk abian jartzearekin. Oso aurreratuta daude hauen lanak eta laster hasi ahal izango dira erabiltzen: Ubitxako igogailuak eta Andretxea berria. Eta denbora gutxi barru egiten hasiko diren beste batzuk ere, hala nola Mekolako igogailuak.

Baserri- edo landa-eremuan, Andiraoren eskaeraren aurrean sentikorrak izanik, baserritarren elkartarekin adostu dugu landa-azpiegituretarako aurrekontu-partida 350.000 euro gehitzea urteko, bai ekitaldi honetan, bai hurrengo 4 ekitaldietan; hala, bailara guztietako pistak berritzeko eta hobetzeko eskaerei erantzunez.

Aldi berean, 2023. urtean zehar, Eibarko ikasleek instalazio onenez goza dezaten eta ia **Eibarko ikastetxeetan obra garrantzitsuak** egin ondoren, beste egiteko batzuen artean, San Andres eta Amañako eskoletako hezetasunak konpontzeari ekingo zaio, 150.000 eurotik gorako lanak.

Bestalde, **Ingurumeneko Aurrekontuak goranzko joerari eusten dio.** 2022an ia 4 aldiz biderkatu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 700.000 euro ingurura hurbiltzen ari da.

Horrez gain, milioi bat euro inguruko inbertsioa egin du Udalak gure herrian **euskararen erabilera eta irakaskuntza sustatzeko.**

Gizarte-babesari dagokionez, udal alor horretan dauden programa guztiak batuta ateratzen den zenbatekoa 5.181.325,35 eurokoa da; aurreko ekitaldian baino % 8,55 gehiago.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da inor atzean ez lagatzeko eta Eibar herri eta hiri gehienetatik bereizten duen bizikidetzagiroari eusteko konpromiso nabarmena. Era berean, aipamen berezia merezi du Eibarko Udalak, urtez urte, gizarte-babesean *per capita* diru gehien inbertitzen duten hirien rankingeko lehen postuetan egotea. Hala, ia 2,3 milioi euro jarriko dira zailtasun handienak eta premia bereziak dauzkaten familiei eta kolektiboari laguntzeko.

Bestalde, 478.000 euroko aurrekontua dago **genero-berdintasuna sustatzeko;** 2022ko ekitaldikoarekin alderatuta, % 73an igo da.

Bestalde, **Garapen Ekonomikorako, Enplegurako eta Berrikuntzarako Sailaren** programek % 4,1eko hazkundea izan dute aurreko urtearekin konparatuta; 2,8 milioi inguru izatetik 2,9 milioitik gora izatera pasatu dira, eta enplegua sustatzeko aurrekontua 180.000 euroan gehitu da. Alde horretatik, 2023ko berrikuntza nagusien artean, Eibarko ekialdean lan-orientaziorako bulegoa irekitzea da.

Gainera, 1,9 milioi euro inguruko aurrekontua prestatu da enpresa-garapena eta berrikuntza programarako. Horiek balio izango dute hiriko industria- eta merkataritza-sarearen aldeko ekintzak garatzen jarraitzeko, eta pertsona ekintzaileei laguntza ekonomikoa emateko eta berrikuntza bultzatzeko ekintzak abian jartzeko, trakzio-elementu gisa, beti Eibarren ezaugarria izan dena.



Kulturara bideratutako aurrekontuari dagokionez, 450.000 euroan gehitu da, 2022ko aurrekontuaren konparatuta, % 11,7, eta 4.300.339,38 euroraino iritsi da.

Zenbateko hori, besteak beste, inpaktuzko kultura-jarduerak antolatzeko eta zabaltzeko erabiliko da, edade guztietako jendearentzat.

Era berean, gure hiriko kultur elkarte-ehun aberatsaren jarduerari laguntzeko balio izango du, alde bien ekimenarekin batera, Udalak eta kolektiboek, eibartarrek gure inguruan maila goreneko kultura-eskaintza izaten jarrai dezaten.

Helburua zera da: herriko bizilagunen bizitza-kalitatea aberastuko duen kultura-agenda bat eskaintzen jarraitzea. Proposamen askotarikoa, era askotakoa, poltsiko guztientzat irisgarria eta eskualde-buru izatearekin bat datorrena. Eibarko kale eta plazetan, Portalean, Coliseoan eta gure hiriko gizarte- eta kultur-erakarpen zentro berrian, Errebaleko ekipamenduan, gozatu ahal izango duguna.

Azkenik, eta larregi ez luzatzearen, bereziki aipatu nahi dut **Gazteria Arloa**, 130.000 euro gehiagoko aurrekontuarekin, adin horretarako berariaz prestatutako programak garatzeko. Gazteenganako arreta beste arlo batzuetatik ere indartuko da, hala nola Garapen Ekonomikotik, ekintzailtza, laguntzak, bekak eta prestakuntza espezifikoak sustatzeko programen bidez.

Ikus daitekeenez, aurrekontuak egin dira Eibar herri integratzailea, tolerantzia, euskalduna, kultura aldetik irekia, berdinzalea, ingurumenaren aldetik jasangarria, sozialki solidarioa eta konprometitua izateko.

Azken batean, gure historia islatu eta etorkizuneko errealitateetara egokituko duen Eibar bat.

NEGOZIAZIOA UDAL TALDEEKIN

Azken 4 urte hauetan gutxiengoan gobernatu dugu, eta, beraz, aurreko ere ezinbestekoa da akordioetara iristea, Aurrekontu Proiektua 2023. urteko kudeaketarako funtsezko tresna gisa onartuko dela bermatzeko.

Baina akordioak ez ditugu bakarrik premiagatik lortzen beste indar politiko batzuekin, baita uste sendoagatik ere.

Sinetsita gaude akordioek indartu, aberastu eta hobetu egiten dutela 2023ko ekitaldi honetarako aurrekontuaren zirriborroa, gure ikuspegitik, gure herriak behar duena ere bazena.

Ezaugarritzat beti izan dugun itun-bokazio horretatik abiatuta, eta nahiz eta ez den lan erraza izan, aztertu dugu ez bakarrik oposizioko talde nagusietako batekin akordio batera iristeko aukera —hori nahikoa zatekeen kontuak onartzeko—, baizik eta oposizioko 3 taldeekin, uste baitugu zenbat eta handiagoa izan adostasuna, orduan eta hobeto egin genezakeela lan elkarrekin herriaren onerako.



Horrela ulertu du **EIBARKO EH-BILDU** udal taldeak ere, eta negoziazio-prozesu baten ondoren, zuzenketa batzuk sartzea erabaki dugu, batzuk bere taldeak proposatutakoak eta beste batzuk talde sozialistak proposatutakoak; guztira, milioi bat euro inguruko balioa dutenak.

Zuzenketa horietako batzuk oinarriak jartzera eta/edo datozen ekitaldietan talde biek hiri-espazioak hobetzeko edo Eibarko biztanleen autonomia sustatzeko (bai emantzipatzeko adinean dauden gazteen artean, bai mendekotasuna ez duten adineko pertsonen artean) beharrezkotzat jotzen ditugun proiektuak egiteko urratsak ematera bideratuta daude; eta, beste batzuk, gure hiriko kultura-eskaintza askotarikoa eta indartsua zabaltzera, edo euskararen eta kulturaren zabalkunderako, animaliak babesteko edo kirola sustatzeko ekintzak garatzen dituzten gure hiriko elkarte batzuen lana babestera bideratutakoak. Lehen sektorearen jardunari duen balioa emateko zuzenketa-zorroa ahazteke, jarduerari eusteko eta belaunaldien arteko errelebo-prozesuan laguntzera bideratuak.

Tamalez, nahiz eta **EIBARKO EAJ-PNV** taldearekin eta **ELKARREKIN PODEMOS-AHAL DUGU EIBAR** taldearekin akordio batera iristeko ahalegina egin eta talde biei eskaintzak aurkeztu arren, talde hauekiko akordioak ez du emaitzarik izan. Hala ere, agintaldi osoan gertatu den bezala, eta hauteskundeak gertu daudela kontuan hartzeke, EIBARKO EAJ-PNVk eta ELKARREKIN PODEMOS-AHAL DUGU EIBAR taldeek aurrekontuak adosteari ezetza eman arren, horrek ez du esan nahi talde sozialistak atea itxi duenik beste une batzuetan eta beste gai batzuei buruzko akordioak lortzeko, bai talde batekin bai bestearekin (edo biekin).

Azkenik, esan nahi dut aurrekontuen zirriborroa 2022ko abenduan aurkeztu zela, gobernu-talde honek egindako lan neketsu baten ondoren. Lan hori, hain zuzen ere, nahiko genukeena baino gehiago luzatu zen, energiaren eta horniduren krisiaren ondorioz sortutako testuinguru ekonomikoa zela eta; eta horrek zaildu egin zuen, hain zuzen ere, jarduera batzuen kostuak eta gauzatze-epeak zenbatestea, baita mantentze-gastuarena ere.

Horrela, gainerako talde politikoei zirriborroa aztertzeke eta zuzenketak aurkezteke epea ematea ere beharrezkoa denez, eta horretarako deituko den Osoko Bilkuran onespena bermatzeko akordioak lortzeko beharrezko negoziazioa ere eraman behar denez, gaur arte iritsi gara.



Uste osoa dut, azken asteetan alderdi politikoekin egindako negoziazioak balio izan duela, ez bakarrik 2023ko ekitaldirako Aurrekontu hau bermatzeko, baizik eta etorkizunean negoziazio emankorrak bermatzeko dituzten irizpideak ezartzeko ere.

Amaitzeko, nabarmendu nahi dut ezen, 2023rako udal aurrekontu honi dagozkion zuzenketak berau aberasteko balio izan dutela alde batera utzi gabe, hiriak dauzkan premia eta proiektu estrategikoei egokitutako proiektua dela.

Gure bizilagunen bizi-kalitatea modernizatzeko eta hobetzeko bidean aurrera egiten lagunduko digun aurrekontu-proiektua. Hauxe izan behar da udal-gobernuaren helburua: umiltasunez eta arduraz lan egitea, etengabe, irmo eta sendo saiatuz Eibarko herritar guztien bizi-baldintzak hobetzeko, eta, aldi berean, baita herria bera ere, bizitzeko erakargarria eta atsegina izan dadin.

Eibarren, 2023ko martxoaren 13an

ALKATEA

JON IRAOLA IRIONDO